

2016ko JARDUEREN TXOSTENA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Kultur Aniztasunaren Bulegoa
Negociado de Diversidad Cultural

AURKIBIDEA

1.-ELKARBIZITZA ETA KULTURARTEKOTASUN PLANA 2017 -2020

- Plana garatzen hasi " elkarbizitzarako eta kulturartekotasun plana 2017-2020"

2. SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZEN- TZIAZIOA

- Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna. Martxoak 21
- Ijito Herriaren nazioarteko eguna. Apirilak 8
- Errefuxiatuen Mundu-eguna. Ekainak 20
- Haurren egun unibertsala. Azaroak 20
- Bideoa
- Aniztasunaren kudeaketari buruzko prestakuntza.
 - Zerbitzuetako teknikariei eta buruei zuzendutako prestakuntza.
 - Udaltzaingoarentzako prestakuntza.
- [ERAKUSKETAK](#)
- "Ijitoen Bizierak, Lungo Drum"
- "Lesbos. Europara lehen urratsa"

3.BIZIKIDETZA ETA HERRITAREN PARTE HARTZEA

- Sukaldanitzak
- Emakume etorkinen kultur aniztasun taldea
- Kultura arteko bizikidetza ikastetxean
 - "Ongi etorri"

4. SAREETAN PARTE HARTZEA

- Kultur aniztasuneko eragileen sarea.
- Elkarbizi sarea/Foru Aldundia.
- "ZAS" zurrumurruen aurkako sarea.
- RECI Kulturen arteko hirien sarea.
- ICC Intercultural Citis

5.KOLABORAZIOAK 2016rekin

DONOSTIA

- Baitara Baita Proiektua

6. DIRU- LAGUNTZAK

ELKARBIZITZA ETA KULTURARTEKOTASUN PLANA

2017 -2020



ELKARBIZITZA ETA KULTURARTEKOTASUN PLANA 2017 - 2020



HIZKUNTZA ZERBITZUAK



KULTURA ZERBITZUAK



ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK



PORTE HARTZE

Donostiako Udala, Kultur Aniztasuna bulegoaren bitartez, eta Emun Kooperatibarekin batera, "Elkarbizitza eta Kulturartekotasun Plana 2017-2020" diseinatu eta martxan jartzeko prozesua abiatu du.

Hiriko kulturartekotasuna eta elkarbizitza bultzatzeko asmoz helburu duela, ildo eta helburu estrategikoak identifikatzen ari dira, eta neurri zehatzak ezartzen helburu horiek bete ahal izateko.

Prozesuaren lehenengo fase honetan, ondorengo atalekin banakako bilerak egin dituzte: Euskara, Berdintasuna, Gazteria, Donostia Sustapena, Donostia Kultura- Festak, San telmo Museoa, Herritarren Pataidetza, Udaltzaingoa eta Gizarte Ongizatea. Bulego bakoitzak eman dituen ekarpenak jaso dira, eta atal bakoitzak solaskide bat izentatu du.

Aurrerago, planaren zirriborroa kultur aniztasunaren alde lan egiten duzuen eragileekin alderatuko da.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Martxoak 21

Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna.

Donostiako Udalak eta hiriko hainbat eragilek eta elkartek, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta egitarau bateratua osatu dute.

Martxoaren 14tik 20ra bitartean hainbat ekintza burutu ziren, besteak beste: emanaldiak, jardunaldiak, zuhaitz landaketak eta arrazakeriaren aurkako martxa. Horrez aparte, Giza Liburutegietako saio berezia egin zen, "Mila historio baino gehiago eta bizitza bakarra", San Telmo Museoa.

Egitarau bateratuaren antolaketan parte hartu zuten: Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren Bulegoa, Donostia Kultura, Fundación Secretariado Gitano, San Telmo Museoa, SOS Arrazakeria, Decebal Asociación Rumania-Euskadi, Romi Bidean, Haurralde fundazioa, Haritzalde Naturzaleen Elkartea, Kaebnai, Bagera Euskaltzaleen Elkartea, + 55, Euskadiko GGKEN Koordinakundea eta Medicus Mundi



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Apirilak 8

Ijito Herriaren nazioarteko eguna



Aurreko urtetan bezala hilaren 8an, Alkateak, Bilkura aretoan, Ijito herriaren ordezkariak harrera egin zuten. Camelamos Adiquerar, Romi Bidean, Secretariado del Pueblo Gitano, Cáritas eta Agifugi elkarten laguntzarekin egin zen jardunaldia. Adostutako Adierazpena irakurri zuten eta ondoren hiriko bandera eta ijitoena, trukatu zituzten. "Gelem, Gelem" Ijitoen ereserkia, Beleén Camachok abestu zuen, David Escuderoren gitarraz lagunduta.

Harrera amaitzean, Nautikora joan eta Ibaiaren Zeremonia egin zen bertan. Hartan, lore hostoak botatzen dira uretara, kandelak pizten diren bitartean, "nazien holokaustoan" izandako heriotzak gogora ekartzeko eta arbasoekiko omenaldi gisa.

Ijito bandera Udaletxeko balkoian egon zen eta Dbus autobusetan ere ikusi ahal izan zen egun osoan.

Amaieran, Udalbatza Aretoan, hamaiketako bat egon zen.

Aurten Ijito Herriaren nazioarteko eguna "Ijitoen Bizierak. Lungo Drom" erakusketarekin bat etorri da eta.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Pertsona Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna Ekainak 20

KANPAINA "Share our Cities-Share the Future"

Donostiak, Intercultural Cities sarearen kide delarik, Europar Kontseiluko "Share our cities_Share the future", kanpainarekin bat egin du, beste 98 hiriekin batera.

Kanpaina honen helburua da migratzaileek tokiko garapen ekonomiko, sozial eta kulturalen duten funtzioa aldarrikatzea, harrera hirirako mehatxua direlako ideia alde batera utziz.

Formakuntza. Gaztelania

Kontutan hartuta, Donostiako Hiriak, asilo eskatu duten 40 lagun hartu dituela, Donostiako udaleko Kultur Aniztasunaren bulegoak, apustu egin du hizkuntzaren ikaskuntza indartzeko, gizarteratzeko lehen neurri gisa. Prestakuntza irailetik abendura eman zen Tandem San Sebastián, Hizkuntz Zentroa Donostian.

Kontzertu Solidarioa. Errefuxiatuak

Ekainak 30ean, Lankidetza departamentuarekin elkarlanean, Donostiako Aquariumean kontzertu bat antolatu genuen non Gani Mirzo artista Kurdoa, Sirian jaioa, Errefuxiatuekin elkartasuna adieraziz, dohaineko kontzertua eskeini zuen.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Bideoa

Maiatzaren 20an aurkeztu genuen "Kaixo eta ongietorri", bizilagun berriei ongietorria emateko eta informazio baliagarria eskaintzeko bideoa. Kultur Aniztasuneko Bulegoak egindako bideo honen bitartez, Donostiako bizilagun berriei ongietorria eman nahi diegu, eta, bide batez, hiria eta etorri berrien intereseko baliabideak aurkeztu.

Bideoa proiektatu baino lehenago, bertan parte hartu duten lau elkartetako kideen testigantzak entzuteko aukera izan genuen: Bagera Euskalzaleen Elkartea, Asociación Artística-Cultural Mestiza, Aitor Ikastolako Latxaga Guraso Elkartea eta Jatorkin Asociación Pro- Inmigrantes.

Kultur Aniztasuneko Bulegoak egindako bideoaren bitartez, Donostiako bizilagun berriei ongietorria eman nahi die, eta, bide batez, hirira iritsi berriak diren hiritarrei, interesa dituzten baliabideak aurkeztu.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Azaroak 20

Haurren Egun Unibertsala

Donostiako Kultur aniztasunaren Bulegoak, Mestiza elkartearekin elkarlanean “Haurren Egun Unibertsalaren Festa” antolatu zuten, Aieteko Kultur Etxean. Ekitaldia, 4- 10 urteko haurrei zuzendua izan zen.

Azaroaren 19an larunbata, “Haurren Egun Unibertsalaren Festa” antolatu zen. Ekitaldiaren ardatzak Kulturaren arteko harremanak eta bizikidetza bultzatzea izan ziren, eta Haurren Eskubideen Adierazpena, ezagutzera ematea.

Bertan parte hartu zuten:

Jairom Black -en musika zuzenean, Eider Elorza abeslariarekin.
Aniztasun muralaren sormena, Mónica Luna eta Chuneta Sánchez-Agustino gidaripean.
Ipuin kontaketa Andrea Khalfaoui; jolasak, tónbola; eta bertan goxoak dastatzeko aukera izan zuten.

Aieteko Kultur etxeko aretoa bete egin zen, eta goiza giro ederrean, jokuak eta bizikidetza elkar lotuz igaro zuten.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

“Zurumurrueen aurkako prestakuntza”

Donostiako teknikariei zuzendua

Azaok 25, 29 eta abenduak 14

Kultur Aniztasunaren Bulegoak, Donostiako Udaltzaingoaren eta SOS arrazakeriarekin elkartearekin elkarlanean, “Zurumurrueen aurkako” prestakuntza saio batzuk antolatu zituzten. Bi motakoak izan dira. Donostiako Teknikariei zuzenduak eta besteak Donostiako Udaltzaingoiari zuzenduak.

Lehenengoan, saioak Aieteko Jauregian eman dira, bederatzi orduko iraupena izan dute, hiru saiotan banatuta.

Gaiak:

Pertsona etorkinei buruzko zurumurru nagusien azterketa egitea eta hauei aurre egiteko estrategiak eta argudioak ikustea eta lantzea.

Donostiako aniztasunaren Mapa ezagutzea.

Hizlari bezala parte hartu dute:

- Maddalen Epelde Y Julia Shershneva. “ZAS” aurkako sarearen ordezkariak.
- Raquel Moreno. ,D-Cas. Xarxa Antirumors eko kidea.
- Xabier Aierdi, IKUSPEGI Inmigrazioaren behatokiaren ordezkaria.



Udaltzaingoiari zuzendua

Bi saio izan ziren eta bederatzi orduko iraupena izan zuten.

“Zurumurrueen aurkako prestakuntza. Aurreiritziak eta estereotipoak”, aniztasuna eraginkortasunez kudeatzeko eta herritarrei tratu-berdintasuna eta errespetua bermatzeko.

Gaiak:

Donostiako Aniztasunaren Mapa.

Hirian dauden zurumurru nagusien azterketa eta hauei aurre egiteko argudioak eta Aurreiritzi eta estereotipoen kudeaketa, identifikazio polizialetan.

Hizlari bezala parte hartu dute:

- Maribel Fuassier y Silvana Luchiani. “ZAS” aurkako sarearen ordezkariak.
- Raquel Moreno, D-CAS, Xarxa Antirumors eko kidea
- Miguel J. García García, Fuenlabradako 2ºudaltzainburua.
- Cristina Henandez. RAIS Fundazioko kidea.

42 langilek parte hartu dute formakuntzan.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Erakusketa

"IJITOEN BIZIERAK. LUNGO DROM"

"Ijitoen Bizierak.Lungo Drom" erakusketa, Ijito Kulturaren Institutua fundazioak eta Acción Kultural Española erakundeak antolatu dute eta bi hilabetez egon da Aiete Kultur Etxean, otsailaren 12tik apirilaren 10era arte.

" Ijito Bizierak. Lungo Drom" erakusketak, ijito herriaren zenbait alderdi erakusten ditu; haien bizimoduan ibilbide historiko bat egiten du, eta " rom herriak" Espainiako kulturari egindako ekarpenak, eta beraien legatu artistikoa, 69 argazkietan, azaltzen dira.

Bisita gidatuak antolatu dira, Joakin Bustamante komisarioarekin, berak gidatu ditu.

Zazpi bisita antolatu dira:

Alde batetik 4 bisita gidatuak , bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduak eta beste aldetik 3 bisita gidatu, elkarte eta hiritar orori zuzenduak.

Horretaz aparte, martxoaren 10ean "Ijitotasuna: historia eta kultura" hitzaldia antolatu zen Aieteko Kultur Etxeko areto nagusian. Parte hartu zuten: Joaquin López Basutamante, Rafa Gimenez (AGIFUGI) eta Juan Carlos Jiménez (Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozilaerako kontseilua).



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

ERAKUSKETA

“LESBOS, EUOPARAKO LEHEN URRATSA”

Erakusketa, uztailaren 1etik irailaren 4ra arte Aieteko Kultur etxean ikusgai egon da.

Erakusketa honen bitartez, beren herrialdetako gerra eta miseriatik ihesi doazen errefuxiatuek Turkiako eta Greziako kostaldeak bereizten dituzten 7 kilometroak gurutzatzerakoan jasan behar izaten dituzten zailtasunak ezagutzeko aukera eman dute. Erakusketa, 29 argazkiek osatu dute.

Nerviofoto taldeko kide den Javi Julio argazkilarikazetariak, egin ditu argazkiak, eta bertan ikusten da, Afganistan eta Siriatic ihesean doazen errefuxiatuek sufritzen ari diren ondorioak. Bost bisita gidatuak antolatu dira.

Erakusketa Lankidetzaren eta Kultur Aniztasunaren Bulegoek antolatu dute, Donostia eta kultura eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren lankidetzarekin.



ELKARBIZITZA ETA KULTURARTEKOTASUN PLANA

2017 -2020

Sukaldanitzak

14 de Mayo

Aurten ere, "Sukaldanitzak" ekimna burutu egin da arrakasta handiz, Programa honek kultura ezberdinen arteko elkarbizitza sustatu eta aniztasunean aberastasuna balioan jarri nahi du. Edizio honetan elkarte gastronomiko eta bederatzi elkarteek parte hartu dute. Guztira 108 pertsona egon dira tailerretan eta 274 ondorengo bazkarian.

Parte hartu dutenek oso balorazio ona egiten dute. Beren hitzetan, bizikidetzarako aukera da, baita gure hirian presente dauden beste Errealitateen ezagutzarako ere.



*Gastronomía rusa:
Baso Etxea / Asoc Rusa Nasledie*



*Gastronomía marroquí
Soc. Zubi Musu/ Asoc. iación
Jatorkin*



*Gastronomía boliviana
Txirain /Asoc Mi Nuevo Potosí*



*Gastronomía mexicana
Loiolatarra Deport./Asoc.Mestiza*



*Gastr. Nicaraguense
Casa.Galicia/ Mujeres del
Mundo Unidas*



*Gastronomía ecuatoriana
Centro Buralés / As.
Esperanza Latina*



*Gastronomía Romani
Soc.Kañoyetan/
Kamelamos*



*Gastronomía guineana
Esperanza CD./AS.
Afrika-euskadi*



*Gastronomía de Mongolia
Sociedad Amaiak
Bat/ Grupo
Mongolia*

AHALDUNDEA

EMAKUMEEN GUNE INTERKUTURALA

Donostiako Kultur Aniztasunaren Bulegoak eta Berdintasun Sailak elkarlanean, emakume etorkinen ahaldunduntze prozesua laguntzeko ekimena sustatzen eta koordinatzen dute. Sorburu kooperatibaren esku dago egitasmoaren dinamizazioa.

Asteartero, gune honetan parte hartu nahi duten jatorri desberdinetako emakumeek, hitzordua daukate

- 2016an; 31 saio egin dira, eta partaideen bizipen propioetatik abiatuta, migrazioak nola bizi dituzten aztertu izan dute elkarrekin. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta Donostian gehiago sustraitzeko tresna baliabideak landu dituzte.

Beraien balorazioa ona izan da, 231 asistentzi egin dira eta gune honetan esperientziak beste emakume batzuekin, konpartitu dituzte, leku berriak ezagutu dituzte eta gai desberdinak landu dituzte

Egitasmo honek, ekintzetan parte hartu duten emakumeei, seguridadea laguntza eta arlo desberdinetan informazioa eman die.



BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Kultura arteko Bizikidetza Eskola Komunitatean
“Ongi etorri eskolara”

Kultur Aniztasunaren bulegoak, Kooperatiba Txikiren eskutik “ONGI ETORRI ESKOLARA” egitasmoa Donostiako Hiriko bost Ikastetxetan martxan jarri du;

- Aitor ikastola eta M^o Reina, Egia auzoan
- Intxaurrondo Hegoa ikastola eta Intxaurrondo ikastola, Intxaurrondo Auzoan
- Zuhaizti ikastetxea, Gros auzoan

Egitasmo honen helburua; beste herrialde batzuetatik datozen familiei, eskolako eta hiriko martxan laguntzea da, eta era berean eskolako eragile guztiak Kultur Aniztasunaren abantailaz jabetzea.

Honen barnean, esanguratsuenen artean daukagu “Familia Laguna” programa, Donostian finkatutako familia boluntarioek eta etorri berriak diren familiak harremanetan eta elkarlanean aritzeko programa. Informazioa partekatuz eta elkarbizitza bultzatuz.

Museo San Telmorekin elkarlanean ere, programa honetan parte hartzen duten familiekin bisita gidatuak antolatu dira, hemengo kulturaren ezaugarri batzuk ezagutzera emanez.



SAREETAN PARTE HARTZEA

ELKARBIZI SAREA / GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak udalerrietan eta aniztasun gaietan lanean dabiltzan arduradun tekniko eta politikoen Elkarbizi sarea bultzatzen du. Arlo hauetan diharduten udal arduradunen artean ezagutza, elkarlana eta sinergiak sustatzeko asmoz. Gure Bulegoak parte hartu du, Foru Aldundiak gai hauekin antolatu dituzten bileretan.



Eragileen Sarea

Udalaren eta pertsona migratzaileei laguntzen dieten elkarten arteko solas gunea da. Bere ibilbidea 2014. urtean hasi zuen. Sare hau finkatzen joan da aniztasunaren alde egiten duen etenik gabeko lanean. Kurtso honetan ere gunea hau mantendu dugu eta beraien ekarpenak jaso eta kontutan izan ditugu.

SAREETAN PARTE HARTZEA

RECI-Kultura Arteko Hirien Sarea

2011. urtean sortu zen Kultura Arteko Hirien Sareak bost urte bete ditu eta hori ospatzeko 10. lan-topaketa egingo du Getxon apirilaren 19an.

Bulegoak parte hartu du, Getxon eta Donostiako mintegietan.

GETXO /RECI.- apirilaren 19an

Ekitaldiaren helburu orokorra kultura arteko hiriak eraikitzekeo ideiak eta proposamen praktikoak eskaintzea izan zen.

DONOSTIA /RECI - Red de Ciudades Interculturales. Urriaren 26an

Sareak bultzatzen dituen proiektuak berrikusteaz gain, erlijio aniztasunaren kudeaketak hirietan suposatzen duen erronka izan zuen hizpide.

Aurten, RECIk "Desafío RECI 2016 Diversity Advantage" ekimena jarri du abian, hain zuzen, "aniztasunaren abantaila" ondoen aprobe txatu dutela erakutsi duten ekimenak identifikatzeko; zehatzago, toki edo lurralde-mailako herri administrazioek; enpresek; gobernuz kanpoko erakundeek; gizarte-entitateek; hezkuntza, kultura zein kirol zentroek abian jarritako ekimenen adibideak identifikatzeko.

SAREETAN PARTE HARTZEA

ICC. Intercultural Cities

Donostiak Europako Kontseiluko Kulturen arteko hirien sare eta programako kide da 2011.urteaz geroztik, eta egun, beste 100 hirik parte hartzen dute bertan. Programa horrek hiriak laguntzen ditu haien kulturarteko estrategiak garatzen, aniztasunaren kudeaketa eta migratzaile integrazioa bideratuz.

2016. urtean zehar Donostiako Udalak Europako Batzordearen ICC programaren Koordinazio bilera batzuetan, parte hartu du, Kultur Aniztasunaren sailaren bidez.

VIENA (Austria); Ekainak 2 eta 3. Bertan landu zen gaia, Hizkuntza Aniztasuna izan zen, eta aukera egon zen ikastetxeak bisitatzeko eta bertan nola lantzen duten ikusteko.

BERGEN (Noruega); Ekainak 9 eta 10. Bertan "Harrera eta errefuxiatuen gizertaratze" gaiak landu ziren.

DONOSTIA; Urriak 28 eta 29, Mintegia, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean, Aieten, izan zen eta bertan, Udaletan Aniztasun Erlijiosoa nola landu hausnartu zen, bereziki Islamofiari nola heldu, gai guzti hauek ICC eta Baitara Baita DSS2016 markoaren barruan landu ziren.

Urriaren 26an, Donostiako Alkateak, Eneko Goiak, eta Europako Kontseiluko ordezkariak, Ivana D'Alessandrok, akordioa sinatu zuten. Sinadura horrek Donostiako Udala ICC-Intercultural Cities (Kulturen arteko Hiriak) programarekin lotzen du, eta mugagabe lanean aritzeko baieztapena onartua izan da.



SAREETAN PARTE HARTZEA

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarearen Aurkezpena/ Presentación de la Red Vasca AntiRumores

Donostiako udaletxeko batzar aretoan bildu ziren Sarea "oraingoz" osatzen duten 30 erakunde eta instituzio publikoak, eta bertan sarearen aurkezpena, maiatzaren 3an egin zuten.

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak, eremu bat izan nahi du, non zurrumurruen aurkako estrategietarako praktika egokiak ezagutu eta aztertuko diren.

- Horretaz gain, taldean edo koordinaturik egindako lan esperientziak sortu nahi dira, eta arreta berezia eskainiko zaie heziketa prozesuan diseinuei, ezagutzarako dokumentzioa eta materialak lantzeari, eta zurrumurruen aurkako ekintzen katalogo bat garatu nahi da sarearen eremuan partekatzeke eta interesa luketen erakunde eta instituzioen eskura jartzeko.
- Kanal bat sustatuko da, Euskadin sorturiko zurrumurruen aurkako esperientzien berri emateko eta haien eragina gizartean biderkatzeke.
- Gizarte eragile eta instituzio gehiagorentzat irekia egongo da, esperientziak eta helburuak partekatzeke.
- **ZAS! Sarearen lehen ekintza**

Aurkeztearekin batera, bertako kide diren erakundeek ordezkariak atxikitze agiria sinatu zuten, eta Sareak bere lehen jardura egin zuen batzar areto nagusian berean. ZAS! Sareko ordezkariak esan zuten, hedabideak balizko aliatu estrategikotzak zituztela, elkarbizitza eta errespetua sustatzeko eta zurrumurruei aurre egiteko.

www.zurrumurrurikez.eus y www.antirumores.eus



ZAS! Sarearen aurkezpena Donostiako alkate Eneko goiak egin zuen, eta harekin batera Getxoko alkate Imanol Landak, Gizarte Polikarako saliburuorde Lide Amilibiak, CEAR Euskadik, SOS Arrazakeriak Gipuzkoa eta Caritas Bizkaia erakundeak

KOLABORAZIOAK DONOSTIA 2016rekin

Proyecto Baitara Baita

Irailaren 7an Möbius eraikuntza inaguratu zen. Baitara Baita proiektuaren barruan kokatzen da.

Eraikuntza 2016 inaguratu zen eta 2017ko amaiera bitartean hirian dauden erlijio eta espiritualitateak bildu, eta elkartzeko gunea izango den behin-behineko "Möbius" .

Pabiloia Donostia 2016ko Baitara baita projektuan kokatzen da. Proiektu horrek erlijio-aniztasuna kudeatzeko erronkari heltzen dio, erlijioek gizartea kohesionatzeko laguntzeko bete dezaketen eginkizun positiboa oinarri hartuta. Hala, proiektu honek espazioak sortzea du helburu, sinesmen desberdinak ezagutzea errazteko eta giza eskubideen oinarriaren inguruan kultur arteko eta erlijio arteko elkarriketa bultzatzeko.

Möbius eraikinaren esperientzia praktikaren bidez, Donostian dagoen erlijio-aniztasuna ikusarazi eta aitortu nahi da. Eraikinaren diseinua EHUKo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko azken kurtsoko ikasleek 2015ean aurkeztutako zortzi proposamenen artean aukeratua izan da. Prozesu horretan, ikasleak lurraldeko komunitate erlijioso eta espiritualetako kideekin harremanetan egon ziren, haien ezaugarriak eta beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Honen harira, 6 bilera egin ziren hainbat komunitate erlijiosoekin. Formakuntza saio bat antolatu zen, udal teknikarie zuzendua eta Koldo Mitxelenan mintegi ireki bat antolatu zen, erlijio-aniztasunari buruz.



DIRU-LAGUNTZAK

Kultur Aniztasuna, Elkar Ezagutza eta Aitortza

Baterako diru-laguntzak

Kultur Aniztasunaren bulegoak guztira 33.000 euro banatu ditu, irabazi asmorik gabeko 26 erakunderen artean. Erakunde horiek, 28 proiektu aurkeztu dituzte kultura aniztasunaren eta elkar ezagutzaren eta aitortzaren alde.

Zenbateko hori lortutako puntuazioaren arabera banatu da aurkeztutako 28 proiektuen artean.

Diru-laguntzen helburua da jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen artean elkar ezagutza eta aitortza bultzatzeko lanean diharduten gizarte eragileek bideratutako ekimenei eta proiektuei laguntzea.

Diruz lagundutako proiektuen asmoa da kultur aniztasuna, gizarte kohesioa eta elkarbizitza baketsua hedatzeko, sentsibilizatzeko, aintzat hartzeko eta defendatzeko jarduerak aurrera eramatea.

Zuzeneko diru-laguntzak

EH11 Kolore erakundeari Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Egunean **11Kolore Fest** proiektua aurrera eramateko eta SOS Arrazakeria erakundeari **Gipuzkoa Solidarioa VII-Bizilagunak: Aldameneko familia** proiektua aurrera eramateko.